

MURUETA. Harri zulatzaileen lehia eta gizon eta zaldi probak izango dira egitarauan

Andra Mari jaiak, ganean

Gaur hasita eta datorren astelehenera arte, herriko jai nagusiak ospatuko dabez

Iratxe Astuy |

Muruetako bizilagunek gaur bertan hasiko dabez herriko jai nagusiak. Hilaren 9a arte ume eta nagusientzako ekintzak izango dira, egunetik gauera.

Andra Mari jaiak, pregoia eta txupinaren jaurtikeagaz hasiko dira, gaur, 19:30etan. Horren ostean, eta herriko giroa berotzen hasten dan bitartean, bolo txapelketea egingo dabe, 20:00ak aldera. Lehenengo hiru irabazlei sari bana eskainiko-deutsie, 50 eurotik 15era bitartekoak. Gaueko 21:30ean, bestalde, herri afaria egiteko batu-ko dira Muruetako herritarrak. Rafaren fanfarriagaz etorriko da, gero, erromeria.

Zapatuan, hilaren 7an, pala txapelketearen finalak jokatu-ko dabez, 16:00etan. Tortilla lehiaketea 19:30ean hasiko da. «Sua eta tortillak egiteko osakinak bakotxaren kontura doaz», argitu dabe Jai Batzordeko kide-ek.

Karta jokoan ibiltea gustoko dabenek briska txapelketa nagusia gertau dabe jaietarako. Lau sari banatuko dabez, 150 eta 54 euro bitartekoak eurak.

Andra Mari egunean, hilaren 8an hain zuzen, goizeko 11:00etan egingo dan meza nagusiagaz hasiko da eguna. Otoitz ordua Busturiko abesbatzeak kantauta egongo da. Eguerdiko 12:00etarako, jaieta-ko ikuskizun nagusietako bat



EGUNKARIA
Zugastietako eta Galdamesko harri zulatzaileen taldeek indarrak neurtuko dabez Muruetan.

gertau dabe: harri zulatzaileen lehia, hain zuzen be. Zugastietako taldea —Bizkaiko Ligako txapelduna— eta Galdamesko taldea —txapeldunordea— aurrez aurre izango dira.

Asto eta zaldi probak

Arratsaldeko orduak gazteen- tzako izango dira. Izan be, 17:00etan goitebeheren lasterketea hasiko da. Lasterketarako eskuz eginiko autoak Goierritik urtengo dabe, Muruetako itsaerrotaraino bajatzeko, ziztu bi-

EGITARAUA

Jaietako ikuskizun nagusia gizon eta zaldi probakaz helduko da, hilaren 9an, arratsaldeko 19:00etan

zian. Txirrinduen lasterketea be izango da aurtengo Muruetako jaietan. Hori 18:00etan hasiko da, eta asto probak 19:30ean.

Muruetako Andra Mari jaiak irailaren 9an amaituko dira. Goizeko 11:00etako meza nagusia herriko hildakoen omenez egingo dabe, eta ondoren, herri hamaiketako be eukiko dabe. Kiri, Koro eta Flash paila- zoak umeentzako saioa eskai- niko dabe, 18:00etan.

Jaietako ikuskizun nagusia, gizon eta zaldi probakaz heldu- ko da, 19:00etan. Jaiei agur esateko, ostera, txokolatea eta su artifizialak izango dira gauean.

MUXIKA. Kaltzontzilo eta bragaturbo lehiaketea izango da goizaldean

Txupinazoagaz eta makailao janagaz hasiko dira gaur Gorozi-ka auzoko jaiak

I.A. |

Gaurtik aurrera, eskualdeko hainbat herritan hasiko dira andramariak ospatzen. Horren artean, Muxikako Gorozi-ka auzoa be badago. Txupinazo-aren zaratea entzun ondoren, makailao janagaz hasiko dira Andra Mari jaiak, 20:00etan.

Ordu erdi beranduago, tute txapelketea jokatu-ko dabe, eta 21:30etatik aurrera, auzotarrak moztarotuta urtengo dabe kalera. Gaueko erromeria Luhartz taldearen eskutik etorriko da. Gau txoriek, bes-

talde, kaltzontzilo eta bragaturbo lasterketan parte hartu-ko dabe, goizaldeko 02:00etan. Horren ostean, 04:00etan, txokolate beroa hartzeko aukerea be eukiko dabe.

Bihar 08:00etan hasiko da kalejirea. Goizeko 10:30etako meza nagusiaren ondoren, hamaiketako egingo dabe, eta 12:00etan pala txapelketea hasiko da. Biharko poteo herrikoia egiteko, 12:30etako ordua emon dabe. Karabina txapelketea, bestalde, 14:00etan izango da, eta Mus txapelke-

tea, arratsaldeko 17:30ean. Gaueko erromeria amaitu eta gero, txarri harrapaketea egingo dabe, eta barriro be txokolatea.

Hilaren 8an, meza nagusia eta hamaiketakoagaz hasiko da jaiarena, 10:30ean. Pelota partiduak 12:00etan hasiko dira, eta igel txapelketea 14:30ean. Arratsaldean umeentzako jolasak ipiniko dabez, eta aerobic saioa eta briska txapelketea be egingo dabez, 17:00etan eta 18:30etan hasita, hain zuzen be.

Andramari jaietako azkenengo eguna astelehena izan- go da, hilaren 9a. Goizean, meza nagusia entzun eta hamaiketako egingo dabe Gorozikatarrek, eta gauerdian, traka ikusgarria izango da.

NABARNIZ. Txupinazoa gaur izango da, 21:00etan

Marmitako jana egingo dabe domekan, andramarietarako egitarauaren barruan

I.A. |

Nabarnizen be jai giroan sartu-ko dira gaurtik aurrera. Andra Mari jaiak astelehenerarte luza- tuko dira, eta ordurarte, hainbat ekintza gertau dabez herrian.

Gaur, 21:00etan, txupinazoa izango da, makailao janagaz ba- tera. Lehenengo jaiaren eguneko erromeria Roberto eta Kepa tri- kilariakaz ospatuko dabe, gaue- an.

Nabarnizko jaiak zapatuan jarraituko dabe. Arratsaldean, moztarro lehiaketea egingo dabe, eta herriko koadrilak afa-

BERMEO

Odola emoteko unidatea ipiniko dabe gaur arratsaldean Lameran

Odola emoteko eguna izan- go da gaur Bermeon. Arratsaldeko 17:00etatik 20:30 arte, odola atarateko karaba- nea egongo da zabalik, La- meran, odola emon gura da- ben guztientzako.

Euskal presoen aldeko kontzentrazioa egingo dabe udaletxearen aurrean, 20:00etan

Euskal presoen giza eskubi- deen defentsan, *Euskal pre- soak Euskal herrira* lelopean kontzentrazioa egingo dabe gaur arratsaldean Bermeon. Bermeoko Udalak konzen- trazino horregaz bat egingo dau eta herritar guztiak parte hartzera konbitau dauz. Ba- tzeko ordua, 20:00etan izan- goda, udaletxearen aurrean.

GERNIKA-LUMO

Neska-mutikoentzako dantza ikastaroan parte hartzeko, gaur emon behar da izena

Gernika-Lumoko Elai-Alai dantza taldeak ikasturte barria hasiko dau, Horretarako, gaztetxoentzako dan- tza ikastaroa eskainiko dau, laster. Horretan parte hartu gura dauena Pasealekuan agertu behar da, gaur, 20:00etan, izena emoteko. Eskolak, zortzi urte gorako neska-mutikoentzako gertau dabez, eta dantzan egiten erakustez ganera, eukaldu- non ohituren barri emongo deutsie.

ria egiteko batuko dira gauean. Rock kontzertuagaz amaituko da eguna. Hits eta Emaiok tal- dek joko dabe.

Domekan, Arratzuko abesba- tzea agertuko da eguerdiko meza nagusira. Horren ondo- ren, Xabier Amuriza eta Igor Elortza bertsolariek euren saioa eskainiko dabe, herriko plazan. Nabarniz eta Ereñoko dantza taldeek bat egingo dabe goize- ko dantza saioan, eta, arratsal- dean, zaldi probak izango dira nagusi. Herri marmitakoa eta morokil janagaz agurtuko da- bez jaiak astelehenean.